

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERAKUNDE IRUDIAREN ESKULIBURUA.

UPV/EHUren Erakunde Nortasunaren Eskuliburu hau sortu da marka bisualeko nortasun sendo eta kalitatezko bat mantentzen laguntzeko.

Hori horrela, UPV/EHUren irudi bisuala zehazteko helburuaz, laburbiltzen dira erakundetik zabalduriko mezu bisual oro sortzeko kontsultatu beharreko arauak. Beraz, eskuliburu honetako arauak guztiz errespetatzea da jatorrizko irudia babesteko berme bakarra, irudi horri kalte ez egiteko modua.

Marka da ondare ukiezin bat, unibertsitate osoari dagokiona, erakundearen ospeari modu bereizezinean lotua. Hau da, unibertsitatearen markaren tratamendua zorrotz zaintzeak eragin nabarmena du haren irudian eta Goi Mailako Hezkuntzan erreferentziazko erakunde gisa duen proiektzioan.

Edozein zalantza sortuz gero UPV/EHUren marka aplikatzean edo beste marka batzuekin batera erabiltzean, kontsultatu Komunikazio Bulegoari.

(harremanetarako datuak)?

# Aurkibidea

---

## 01. Sarrera

1.1. UPV/EHU marka grafikoaren jatorria

---

## 02. Marka grafikoak

2.1 Marka grafiko nagusia  
2.2. Marka eratorriak  
2.3. Ikastegi marka  
2.4. Sail marka  
2.5. Institutu marka  
2.6. Ikerketa intentsiboko zentroko marka  
2.7. UPV/EHU katedra marka  
2.8. EHU markak  
2.9. Ikertaldeak  
2.10. Unibertsitate-enpresa-gizarte gelen marka  
2.11. UNESCO katedraren marka  
2.12. Urteurrenetarako logotipoa  
2.13. Marken arkitektura  
2.14. Unibertsitate erakundeen arteko lankidetzak  
2.15. Beste marka grafiko batzuekin batera erabiltzeko arauak

---

## 03. Hizkuntza ofizialen erabilera

3.1. Markaren idazketa eta hizkuntzak  
3.2. Terminologia erabiltzeko barne gomendioak

---

## 04. Tipografia

4.1 Zergatik tipografia propioa?  
4.2. Kontzeptu sortzailea eta prozesua  
4.3. Pisu eta familia tipografikoak  
4.4. UPV/EHU piktogramak

---

## 05. Euskarri Korporatiboak

5.1 DIN formatuko logotipoak erabiltzeko irizpide orokorrak  
5.2. Bisita txartela  
5.3. Eskutitz orriak  
5.4. Gutun-azal amerikarra  
5.5. C4 gutun-azala



# SARRERA.

# 1

## 1.1. Marka grafikoaren jatorria.

Irailaren 23ko 2541/1977 Errege Dekretuaren bidez, Bilboko Unibertsitatearen Barrutia (abenduarien 18ko 3260/1969 Dekretu bidez finkatua) hedatu zen Bizkai, Araba eta Gipuzkoako lurraldeetara, eta baimena eman zitzaion unibertsitate horren Gobernu Batzarrari izen aldaketa eska zezan, egoki iritziz gero, kulturalki euskalduna zen esparru batean berregituraturiko barruti berrira egokitzeko. Baimen horri erantzunez, Bilboko Unibertsitateko Gobernu Batzarrak, Euskaltzaindiari eta Euskal Herriko esangura sozial eta politikoko hainbat erakunderi kontsultatu ondoren (Eusko Kontseilu Nagusiko Hezkuntza Saila barne), proposatu zuen Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea izena hartzea. Izen aldaketa Madrilen baimendu zen, 1980ko otsailaren 25ean.

1981ean, UPV/EHU ofizialki sortu eta urtebetera, Gregorio Monreal orduko errektoreak Gobernu Batzarrari azaldu zion unibertsitate berriari ikur propio bat ematearen beharra, oraindik ere erabiltzen zen Bilboko Unibertsitatearena ordeztzeko.

Pedro Manterola Arte Ederren Fakultateko dekanorekin txosten batean oinarrituta, Gobernu Batzarrak erabaki zuen Eduardo Chillidaren esku uztea ikur grafiko berri bat egiteko ardura.

Artistak enkargua onartu zuen, eta abiapuntutzat harturik berak aurretik euskal unibertsitatearen aldeko kanpainarako egin zuen logoa, ikurra sortu zuen eta dohaintzan eman zion unibertsitateari, inolako diru konpentsaziorik eskatu gabe. 1982. urtea zen.

Erakundearen Estatutuek (martxoaren 18ko 70/1985 Dekretu bidez onartuak) jasotzen duten bezala, UPV/EHUren ikurra da Zientziaren Arbolaren irudikapen alegorikoa. Goian idatzita du "eman ta zabal zazu" leloa, Iparragirreraren «Gernikako Arbola» kantu ezagunetik hartua. Behean, ezkerrean, "Universidad del País Vasco"; eskuinean, "Euskal Herriko Unibertsitatea".

Zientziaren Arbolaren eta euskal foruen erreferentziaren arteko konbinazioa, "eman ta zabal zazu" leloaren bidez ezarria, ezin egokiagoa izan zen euskal unibertsitate gaztearen norabidea definitzeko: euskal historian, kulturen eta gizartean sustraitua, prestakuntzan eta ikerketan diharduena, bai eta lan horren fruitu guztiak kanpora zabaltzen diharduena ere.




1970



1981



1985




Eduardo Chillida, 1997

# MARKA GRAFIKOAK.


# 2

## 2.1. Marka grafiko nagusia.

UPV/EHUren marka hiru elementuk osatzen dute: ikurrak, logotipoak eta leloak. Haien antolamendua eta elementuen arteko erlazio proportzionalak mantendu egin behar dira eskuliburu honetan aipatu moduan. Markan eginiko edozein aldaketa haren kalterako izango litzateke; ondorioz, UPV/EHUren beraren irudiaren kalterako.



## 2.1. Marka grafiko nagusia.



### Proporzioak


Marka sortzean, kontuan izan behar da alboko laukituan zehazten den proportzioen eskema, "X" balioaren arabera.

### Kolore korporatiboak

UPV/EHUren kolore korporatiboak dira Pantone Process Black eta kolore zuria. Kuatrikromia eta RGB baliokideak ere zehazten dira. Irizpide kromatiko hau aplikatzen zaie bai UPV/EHUren marka nagusiari bai EHU marka eta bertsio guztiei.

### Tipografia

Helvetica da logotipoan nahiz leloan erabili behar den familia tipografikoa. Leloak letra minuskulaz egon behar du, eta logotipoak hasierako letrak bakarrik izango ditu letra maiuskulaz idatzita.



*Helvetica Regular*

abcdefghijklmnopqrstuvwxyz  
ABCDEFGHIJKLMNOPQRSTUVWXYZ  
123456789 !@#\$%&'()\*+,-.;:;

## 2.1. Marka grafiko nagusia.

### Gutxieneko tamainak eta markaren bertsio txikituak

Markaren gutxieneko tamaina finkatzen da, behar bezala irakurri eta ulertuko dela ziurtatzeko.

Marka nagusiaren bi bertsio txikiagotu daude, "Gehieneko txikitzea" (40 mm) tamainaren azpitik erreproduzitzeko. Ez da komeni inola ere marka erreproduzitzean zabalera 6 mm-tik beherekoa izatea. Azken bertsio horretan kendu egiten da atal tipografikoa eta soilik erabil daiteke zalantzarik ez dagoenean piezari dagokion testuinguruaz, inoiz ez markaren irudikapen bakar gisa edo testuinguruaren berri ez duen pertsona batek jaso dezakeen markaren lehen inpaktu gisa.

### Markaren bertsio negatiboa

Markaren bertsio negatiboa erabiliko da soil-soilik ezin denean zurian inprimatu, inprimatzeko materialagatik edo teknikagatik. Adibidez, merchandising piezetan, promozio materialean, objektuen pertsonalizazioan...

#### Gehieneko murrizketa



40 mm / 200 px



12 mm / 60 px



6 mm / 30 px


#### Marka negatiboa



Deskargatu bertsioak



## 2.1. Marka grafiko nagusia.




### Babes ingurua

arka babesteko inguru bat ezartzen da, kanpoko ezein elementuk inbaditu behar ez duena, marka behar bezala irakurri eta identifikatzeko.

### Erabilera okerrak


1. Ez da kanpoko inolako elementurik sartu behar logotipoaren "babes inguruan".
2. Erabiliko den tipografia bakarra izango da Helvetica familia (marketan erabilia).
3. Ikurraren eta hitzeko adierazpenaren arteko konbinazioak mantendu egingo du eskuliburu honetan ezarritako elementuen arteko proportzioa.
4. Portaera kromatikoak egokia izan behar du.



## 2.2. Marka eratorria.


Ondoren aipatuko diren salbuespen batzuetan izan ezik, UPV/EHUren EHU marka eta bertsio guztiek logika konstruktibo bati erantzuten diote.

Normalean, informazioa kokatzen da marka nagusiaren eskuinean, babes ingurua errespetatuta eta lerro bertikal batez bereizita. Informazio hori idatziko da ere Helvetica Regular familia tipografikoa erabiltuta. Euskarazko testua % 100 beltza izango da; gaztelaniazkoa, % 70. Bertsio negatiboan, euskarazko testua % 100 zuria izango; gaztelaniazkoa, % 60. Marka nagusiari erantsitako atalaren garaiera ez da inoiz izango markarena baino handiagoa.



## 2.3. Ikastegi marka.


UPV/EHUko eskolek, fakultateek eta esperientzia gelek beren logotipoa dute eta sortzen da ikastegiaren izen ofiziala letra maiuskulaz erantsita marka nagusiari.



Adibideak:

|                                                                                                                                                        |                                                                                                                 |                                                                                                                                                         |                                                                               |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------|
| <br>Universidad<br>del País Vasco Euskal Herriko<br>Unibertsitatea   | GIZARTE<br>ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN<br>FAKULTATEA<br>FACULTAD<br>DE CIENCIAS SOCIALES<br>Y DE LA COMUNICACIÓN  | <br>Universidad<br>del País Vasco Euskal Herriko<br>Unibertsitatea   | ZUZENBIDE<br>FAKULTATEA<br>FACULTAD<br>DE DERECHO                             |
| <br>Universidad<br>del País Vasco Euskal Herriko<br>Unibertsitatea | ARKITEKTURA<br>GOI ESKOLA<br>TEKNIKOA<br>ESCUELA<br>TÉCNICA SUPERIOR<br>DE ARQUITECTURA                         | <br>Universidad<br>del País Vasco Euskal Herriko<br>Unibertsitatea | EKONOMIA<br>ETA ENPRESA<br>FAKULTATEA<br>FACULTAD<br>DE ECONOMÍA<br>Y EMPRESA |
| <br>Universidad<br>del País Vasco Euskal Herriko<br>Unibertsitatea | HEZKUNTZA, FILOSOFIA<br>ETA ANTROPOLOGIA<br>FAKULTATEA<br>FACULTAD<br>DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA<br>Y ANTROPOLOGÍA | <br>Universidad<br>del País Vasco Euskal Herriko<br>Unibertsitatea | PSIKOLOGIA<br>FAKULTATEA<br>FACULTAD<br>DE PSICOLOGÍA                         |

## 2.3. Ikastegi marka.



### Ikastegi markaren nazioarteko erabilerak.

Marka eraikitzeko sistema antzekoa da, baina testua itzultzen da eta "Euskal Herriko Unibertsitatea"-ren itzulpena sartzen da.

Informazioa letra maiuskulaz idatzita dago. Kasu honetan, % 100 beltza erabiltzen da ikastegiaren izenean; %70eko ñabadura, unibertsitatearen izenaren itzulpenean.

Adibideak:



FACULTY  
OF EDUCATION  
AND SPORT  
UNIVERSITY  
OF THE BASQUE  
COUNTRY



FACULTY  
OF CHEMISTRY  
UNIVERSITY  
OF THE BASQUE  
COUNTRY



FACULTY  
OF ECONOMICS  
AND BUSINESS  
UNIVERSITY  
OF THE BASQUE  
COUNTRY



FACULTY  
OF EDUCATION, PHILOSOPHY  
AND ANTHROPOLOGY  
UNIVERSITY  
OF THE BASQUE  
COUNTRY



FACULTY  
OF LAW  
UNIVERSITY  
OF THE BASQUE  
COUNTRY




FACULTY  
OF FINE  
ARTS  
UNIVERSITY  
OF THE BASQUE  
COUNTRY

Deskargatu guztiak



2.4. Sail marka.


UPV/EHUko sailek beren logotipoa dute, eta sortzen da sailaren izen ofiziala minuskulaz erantsita marka nagusiari.



Adibideak:

|                                                                                                                                                           |                                                                                                                                                         |                                                                                                                                                            |                                                                                                                               |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <br>Universidad<br>del País Vasco    Euskal Herriko<br>Unibertsitatea   | <b>Ekonomia<br/>Aplikatua I<br/>Saila</b><br>Departamento<br>de Economía<br>Aplicada I                                                                  | <br>Universidad<br>del País Vasco    Euskal Herriko<br>Unibertsitatea   | <b>Farmakologia<br/>Saila</b><br>Departamento<br>de Farmacología                                                              |
| <br>Universidad<br>del País Vasco    Euskal Herriko<br>Unibertsitatea | <b>Erizaintza<br/>Saila</b><br>Departamento<br>de Enfermería                                                                                            | <br>Universidad<br>del País Vasco    Euskal Herriko<br>Unibertsitatea | <b>Bilakaeraren<br/>eta Hezkuntzaren<br/>Psikologia Saila</b><br>Departamento<br>de Psicología Evolutiva<br>y de la Educación |
| <br>Universidad<br>del País Vasco    Euskal Herriko<br>Unibertsitatea | <b>Genetika, Antropologia<br/>Fisikoa eta Animalien<br/>Fisiologia Saila</b><br>Departamento de Genética,<br>Antropología Física<br>y Fisiología Animal | <br>Universidad<br>del País Vasco    Euskal Herriko<br>Unibertsitatea | <b>Neurozientziak<br/>Saila</b><br>Departamento<br>de Neurociencias                                                           |

## 2.5. Institutu marka.



UPV/EHUren institutuek beren logotipoa dute, eta sortzen da institutuaren izen ofiziala minuskulaz erantsita marka nagusiari.

Adibideak:



Kriminologiaren  
Euskal  
Institutua  
Instituto  
Vasco de  
Criminología



Enpresari Aplikatuko  
Ekonomiaren Institutua  
Instituto de Economía  
Aplicada a la Empresa




Ekonomia  
Publikoaren  
Institutua  
Instituto de  
Economía  
Pública



Teknologia  
Mikroelektronikaren  
Institutua  
Instituto de  
Tecnología  
Microelectrónica

## 2.6. Ikerketa intentsiboko zentroko marka.




Institutuen kasuan, siglaren bereizgarria (Helvetica Bold) eta ohiko nomenklatura dute ikastegiaren izenaren atalean.

Adibideak:



## 2.7. UPV/EHU katedra marka.

UPV/EHUren katedrek beren logotipoa dute, eta sortzen da katedraren izen ofiziala minuskulaz erantsita marka nagusiari.



Adibideak:



Deskargatu guztiak



## 2.8. EHU markak.

Erakunde eta egitasmo batzuek EHU marka propioak dituzte, eta beste modu batean sortzen dira.

EHU marka horietan, EHU siglak bakarrik erabiltzen dira, minuskulaz, erakundearen izenari lotuta.

Kanpo euskarrietan, marka orokorrarekin batera erabiltzen dira; barne euskarrietan, gabe, baldin eta testuingurua guztiz definituta badago.

Imagotipo hauek testu jarraituaren zati direnean, honela idatzi behar dira: "EHUkultura", "EHUalumni", EHU maiuskulaz eta gainerakoa minuskulaz.

EHU markek Komunikazio Bulegoaren oniritzia behar dute.



Adibideak:



ehu**Abesbatza**

ehu**alumni**



ehu**alumni**

ehuBiblioteka



ehu**gune**

ehu**Abesbatza**

ehu**kirola**

ehu**Orkestra**  
**sinfonikoa**

ehu**gune**

Deskargatu guztiak



## 2.9. Ikertaldeak.

“UPV” “EHU” siglen bertsio tipografikoa erabiltzen dute eta sortzen dira bi bertsioak (euskarazkoa eta gaztelaniazkoa) erdiguneari dagokionez lerrokatuta. Hiru marka mota erabil daitezke, beharren arabera.

### 1. Imagotipo / logotipo propioak dituzten markak

Markaren masak ez ditu gainditu behar UPV/EHU siglen lerro espazialak, ezta haien bolumen horizontala ere. Markak tipografia badu, gehienez ere 10 letra.

### 2. Akronimo markak

Instituten marken eskema bera erabili behar da. Markak akronimoa eta azalpena baditu, akronimoa ez da errepikatu behar bi lekuetan, luzeragatik.

### 3. Marka deskribatzaileak

Aurrekoak bezala, baina deskribatzaileagoa den akronimorik gabe.

Hiru kasuetan, Komunikazio Bulegoaren oniritzia behar da.

Imagotipo / logotipo propioak dituzten markak

UPV  
EHU

IKERKETA  
TALDEA  
GRUPO DE  
INVESTIGACIÓN

 ikasgura

UPV  
EHU

IKERKETA  
TALDEA  
GRUPO DE  
INVESTIGACIÓN

 LAIDA

UPV  
EHU

IKERKETA  
TALDEA  
GRUPO DE  
INVESTIGACIÓN

 hkg  
ecs

Imagotipo / logotipo propioak dituzten markak

UPV  
EHU

IKERKETA  
TALDEA  
GRUPO DE  
INVESTIGACIÓN

**Ixa Taldea**

Tecnología del lenguaje al  
servicio de la sociedad

UPV  
EHU

IKERKETA  
TALDEA  
GRUPO DE  
INVESTIGACIÓN

**Q-Nanofotonika**

Nanofotónica para la identificación y desarrollo de  
nuevos procesos y aplicaciones en espectroscopias  
moleculares, microscopio de campo cercano y  
tecnologías cuánticas con fotones.

Imagotipo / logotipo propioak dituzten markak

UPV  
EHU

IKERKETA  
TALDEA  
GRUPO DE  
INVESTIGACIÓN

Análisis biofísicos multiescala de  
membranas biológicas: nuevas  
tecnologías y herramientas moleculares  
para estudiar procesos fisiológicos y  
patológicos en membranas.

UPV  
EHU

IKERKETA  
TALDEA  
GRUPO DE  
INVESTIGACIÓN

Tratamiento de la Señal y  
Radiocomunicaciones

## 2.10. Unibertsitate-enpresa-gizarte gelen marka.

Izenek izan behar dute ahalik eta laburrenak, kontzeptuak errepikatu gabe. Marka hauek erabiltzen dute "UPV" "EHU" siglen bertsio tipografikoa eta sortzen dira bi bertsioak (euskarazkoa eta gaztelaniazkoa) erdiguneari dagokionez lerrokatuta.



Adibideak:

UPV  
EHU

TECNALIA  
GELA TEKNOLOGIKOA  
AULA TECNOLÓGICA  
TECNALIA

UPV  
EHU

AR RACKING GELA  
AULA AR RACKING

UPV  
EHU

FARMAKOLOGIAKO  
JANSSEN GELA  
AULA JANSSEN  
EN FARMACOLOGÍA

UPV  
EHU

ORMAZABAL-VELATIA GELA  
AULA ORMAZABAL-VELATIA

Deskargatu guztiak




## 2.11. UNESCO katedraren marka.

Lehen mailako kolaborazioetan gertatzen den bezala, maila berean jartzen dira katedrarako sortutako marka eta UNESCOren marka, "Katedra - Cátedra" bereizgarria erantsita.

Katedraren marka sortzen da katedraren izen ofiziala letra minuskulaz erantsita marka nagusiari.

Aukera badago eta piezan nahikoa leku zuri egonez gero, komenigarria litzateke bi markak bereiztea babes ingurua errespetatuta.



Adibide elebiduna:



Nazioarteko adibidea:



Deskargatu guztiak



## 2.12. Urteurrenetarako logotipoa.

Markari gehitzen zaio urteurrenaren berri ematen duen gehigarri tipografiko bat, eta soilik erabili behar da urteurrenaren urtean. Lelo bat gehitu nahi izanez gero, ez du gaitutuko URTE/AÑOS atalaren zabalera.



## 2.13. Marken arkitektura.

### Marka grafiko nagusia



### Bertsio txikituak



### Ikastegi / esperientzi gela marka



ARKITEKTURA  
GOI ESKOLA  
TEKNIKOA  
ESCUELA  
TÉCNICA SUPERIOR  
DE ARQUITECTURA



FACULTY  
OF EDUCATION  
AND SPORT  
UNIVERSITY  
OF THE BASQUE  
COUNTRY

### Sail marka



Ekonomia  
Aplikatua I  
Saila  
Departamento  
de Economía  
Aplicada I

### Institutu marka



Kriminologiaren  
Euskal  
Institutua  
Instituto  
Vasco de  
Criminología

### Ikerketa intentsiboko zentroko marka



**CFAA**  
Fabrikazio Aeronautiko  
Aurreratu Zentroa  
Centro de Fabricación  
Avanzada Aeronáutica



Kultura  
Zientifikoko  
Katedra  
Cátedra  
Cultura  
Científica

### Katedra marka

### EHU markak



### Unibertsitate-enpresa-gizarte gelaren marka




### Ikertaldeak



2.14. Unibertsitate egituren arteko lankidetzak.

Sinatu behar denean UPV/  
EHUko bi egitura maila berean  
elkarlanean ari diren marka  
batekin, ez da marka orokorra  
errepikatuko.

Ohiko marken formatu bera dute, baina sortzen dira marka  
orokorra eta bi atal tipografiko edo gehiago erantsita.



BILBOKO  
INGENIARITZA  
ESKOLA  
ESCUELA  
DE INGENIERÍA  
DE BILBAO

GIPUZKOAKO  
INGENIARITZA  
ESKOLA  
ESCUELA  
DE INGENIERÍA  
DE GIPUZKOA



HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

GIZARTE  
ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE CIENCIAS SOCIALES  
Y DE LA COMUNICACIÓN



Ingeniaritza Kimikoa  
eta Ingurumenaren  
Ingeniaritza Saila  
Departamento de  
Ingeniería Química  
y del Medio Ambiente

Komunikazioen  
Ingeniaritza  
Saila  
Departamento  
de Ingeniería  
de Comunicaciones



Injendintza  
Saila  
Departamento  
de Dibujo

Ikus-entzunezko  
Komunikazioa eta  
Publizitatea Saila  
Departamento de  
Comunicación Audiovisual  
y Publicidad


## 2.15. Beste marka grafiko batzuekin batera erabiltzeko arauak.

# Lehen mailako lankidetzak

UPV/EHUren maila berean kokatzean beste marka eta erakunde batzuk, haien gehieneko altuerak ez du gaintitu behar UPV/EHU markaren altuera. Kokapenari dagokionez, beti egongo dira eskuinean, eta ezin izango dira egon 14x-tik beherako distantziara, bai marketan bai marka nagusiaren bertsoietan. Erabili behar ditugu marka laguntzaileen bertsisio karraituenak, ahal dela zuri-beltzekoak edo gris-eskalakoak.

Aukera badago eta piezan nahikoa leku zuri egonez gero, komenigarria litzateke bi markak bereiztea eta bi-biak nabarmen ikustea.

9. orrialdean, informazio gehiago aurki daiteke DIN formatuan eta formatu digitaletan dauden marken proportzioei eta kokapenei buruzko irizpide orokorrei buruz.



# HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERA.

### 3.1. Markaren idazketa eta hizkuntzak.

Markaren idazketa.

UPV/EHUren Estatutuen arabera, unibertsitatearen izen ofiziala da "Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea", edo UPV/EHU, laburtuta. Irakurketa errazteko, proposatzen da euskarazko testuetan erabiltzea Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), eta gaztelaniazkoetan, Universidad del País Vasco (UPV/EHU).

Estatutuen 8. artikuluaaren arabera, unibertsitatearen hizkuntza ofizialak dira euskara eta gaztelania, eta "UPV/EHUk neurriak hartuko ditu euskararen erabilera normaltzeko unibertsitateko irakaskuntzan, ikerketa zientifikoan eta administrazioaren eta zerbitzuen alorreko jardueran".

UPV/EHUren Euskararen Plan Gidariak ezartzen ditu bi hizkuntza ofizialak harreman ofizialetan eta protokolo harremanetan erabiltzeko irizpideak eta jarraibideak.

Arau orokor gisa, UPV/EHUk sortutako edozein dokumentuk, komunikaziok edo elementuk, baldin eta hizkuntza elementuren bat badu, bermatu egingo du euskararen presentzia, eta hizkuntza bat baino gehiago baditu, euskarak izango du lehentasuna. Adibidez, zutabeak erabiliz gero, ezkerrekoan euskararako testua jarriko da; eskuinekoan, beste hizkuntzan idatzitakoa.

Arau hauen laburpen bat ikus daiteke "UPV/EHUren harreman ofizialetan hizkuntzen erabilerarako jarraibide eta irizpideak" dokumentuan.

... Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHUren) informazioa kudeatzeko, eta enpresa prozesuetan IKT soluzioak txertatu ahal izateko. UPV/EHUk lankide ditu 250 enpresa laguntzaile baino gehiago, eta horietan egin ahal izango dituzun praktikei esker, prestakuntza integrala lortuko duzu....

...la información de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU), permitiendo integrar soluciones de las TIC en dichos procesos empresariales. La UPV/EHU cuenta con la colaboración de más de 250 empresas en las que podrás realizar prácticas voluntarias que contribuirán a tu formación integral...

...information of the University of the Basque Country (UPV/EHU), enabling the integration of ICT solutions in these business processes. The UPV/EHU has the collaboration of more than 250 companies in which you will be able to carry out voluntary internships that will contribute to your comprehensive training...

## 3.2. Terminologia erabiltzeko barne gomendioak.

### Izen propioak

Hasierako letra maiuskulaz:

- **Orokorra:** UPV/EHUren izenak, izen arruntak, izen propioak, toponimoak.
- **Jakintza arloak:** Zientzia Esperimentalak.
- **Arlo akademiko nagusiak:** Zuzenbidea, Medikuntza, Ingeniaritza (erreferentzia orokorretan izan ezik: Matematikaren eta filosofiaren greziar aitzindariak...).
- **Graduko, graduondoko edo doktorego programetako titulazioak;** gradu hitza barne: Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua.
- **Irakasgai zehatzak:** Antzinaroko Gizarteak eta Kulturak.
- **Fakultateak edo eskolak:** Arte Ederren Fakultatea.
- **Unibertsitate sailak:** Matematika Aplikatua.
- **Barneko administrazio zerbitzuak eta organoak:** Pertsonaleko Gerenteordetza.
- **Lanbide kategoriak, hasierako letra maiuskulaz bi kasutan bakarrik:** Irakasle-ikertzaileak, TEKAZEL
- **Legeak eta arautegiak:** Legeen izen ez-ofizialak minuskulaz beti (hipoteka legea). Izen ofizialetan, maiuskulaz idazten dira elementu esanguratsu guztiak: Herriaren Defendatzailearen Lege Organikoa. Hala ere, legearen izena luzeegia denean, lehenengo elementua bakarrik idazten da maiuskulaz: Puntukako gidabaimena arautzen duen eta trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko legearen testu artikulatua aldatzen duen legea; komatxo artean edo letra etzanez, testu baten barruan egonez gero, haren luzera mugatzeko. Hasierako maiuskula izenetan eta adjektiboetan, baina ez lotura partikuletan.

Ez dute hasierako maiuskularik:

- **Kargu akademikoak:** errektoreordea (baina Irakasleen arloko errektoreordea).
- **Administrazio karguak:** zuzendaria (baina Berdintasunerako zuzendaria).
- **Lanbide kategoriak:** bitarteko irakasle lan kontratudunak.

Protokolo dokumentuetan (txartelak, gonbidapenak, etab.) eta kargu oso zehatzen kasuan (Lehendakaria, Errektorea...), minuskulaz jarri behar da kargua, nahiz eta gero eta handiagoa den *aurkakoa* egiteko ohitura.

## 3.2. Terminologia erabiltzeko barne gomendioak.

### Izen arruntak

Hasierako letra minuskulaz beti. Aurreko izen guztiak erabil daitezke izen arrunt gisa. Beraz, kasu bakoitzean bereizten jakin behar da. Adibidez, *Euskal Herriko Unibertsitatea*, baina *Euskal Herriko edozein unibertsitate*. Edo *Medikuntza Fakultatea*, baina *Estatuko Medikuntza fakultate guztiak*. Unibertsitate hitza, izen arrunt gisa erabiltzean, minuskulaz idatzi behar da.

### UPV/EHUren izena

#### Akronimoa:

Beti *UPV/EHU*, bai euskaraz bai gaztelaniaz

#### Izen Osoa:

UPV/EHUren izen ofiziala da *Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea*. Komunikazio Bulegoan, kazetaritza testuetan, izena agertzen den lehen aldian idazten dugu izen osoa; hortik aurrera, akronimoa edo izen osoa erabiltzen dugu (baina testuaren hizkuntzan bakarrik). UPV/EHU akronimoa izen osoari gailentzea komeni ez bada ere, baliabide egoki bat izan daiteke ez errepikatzeko etengabe unibertsitatearen izena testu luzeetan. Bestetik, *Universidad del País Vasco* edo *Euskal Herriko Unibertsitatea* eta *UPV/EHU* aukerez gain, errepikapen antiestetikoak saihesteko hirugarren baliabide bat izan daiteke *euskal unibertsitate publikoa* erabiltzea (izen arruntaren ortografiarekin, baina erreferentzia eginez erakunde bakar bati).

## 3.2. Terminologia erabiltzeko barne gomendioak.

### Toponimoak

Izen ofizialak erabili behar dira, eta ñabardura batzuk sortzen ditu horrek. Horrela, lurraldeei dagokienez: *Bizkaia* eta *Gipuzkoa*, baina *Álava* gaztelaniaz eta *Araba* euskaraz. Jentilizioak beti minuskulaz: *bizkaitar*, *gipuzkoar*, *arabar*.

#### Hiriburuak:

BILBAO gaztelaniaz eta BILBO euskaraz.

GASTEIZ. *Vitoria-Gasteiz* da izen ofiziala, eta horrela idatzi behar da beti.

DONOSTIA. *Donostia / San Sebastián*, da izen ofiziala, zuriunea utzita barraren aurretik eta atzetik. Dena dela, aukera bat edo bestea (hizkuntza bakarrean) erabil daiteke, testu idatzi baten barruan.

Toponimo horien jentilizioak idatzi beharko lirateke beti erabiltzen ari den hizkuntzan.

Adibidez, Bizkaia edo Gipuzkoa, baina gaztelaniaz idaztean, vizcaíno/a eta guipuzcoano/a.

### Ikasturteak

Marratxoarekin idatzi behar dira: 2020-2021 ikasturtea (ez barrarekin).

# TIPOGRAFIA.

# 4


## 4.1. Zergatik tipografia propioa?

EHU letra tipoa da UPV/EHUK finantzaturiko eta UPV/EHUren «Letraz» Diseinu Grafiko eta Tipografiako ikertaldeak eginiko ikerketa proiektu baten emaitza. Helburua izan da sortzea tipografia espezifiko bat, unibertsitatearen erakunde nortasun bisuala kudeatzeko moduaren parte gisa.

Eduardo Chillida euskal artistak formari buruz landutako espekulazio estetikoetatik abiatuta, ikertaldeak oinarri kontzeptual bat planteatu du nortasun bisualeko ezaugarri batzuk emateko UPV/EHUri, letren trazu berezi baten bidez.

Artista horren ekoizpen grafikoan aurki ditzakegu sorkuntza tipografikorako funtsezko printzipioekin bat datozen ekarpen burutsuak, forma dinamiko eta konstruktiboen planteamenduari dagokionez, non zorroztasun geometrikoa nolabaiteko organikotasunak gainditzen duen.

Organikotasun hori sortzen da egituraren nukleotik beretik —cursus—, keinuaren ekintza modulatuak ematen duen bizi-indarragatik —ductus—, betearen eta hutsaren arteko dialektikagatik —forma/kontraforma—, bulkada eta berezkotasunagatik —izaera—, edo bizi den ingurunearen kultura bereizian hizkuntza plastiko bat baieztatzeagatik —nortasun—.



Eduardo Chillida, 1982.  
*Idigi I.*



## 4.2. Kontzeptu sortzailea eta prozesua.

### UPV/EHU tipografia.

Letra gai da erakundearen balioak modu bisualean identifikatzeko, bereizteko eta transmititzeko, eta horrek eragiteko ahalmena ematen dio, esaten den horretan, esateko moduaren bidez.

Alde horretatik, UPV/EHUrentzat bereziki sorturiko tipografia korporatiboa da gure begi-bistako hizkuntza. Bestela esanda, gure unibertsitateak bisualki hitz egiten duen modua da. Idazketa moldeek tonua, doinua, tinbrea, erritmoa, izaera... dute, hitzek eta esaldiek bezalaxe.

EHU tipografiaren sorrera oinarritzen da nortasun bereziko printzipio batzuetan, eta UPV/EHUK printzipio horiek transmititu nahi ditu, jendaurrean aurkeztu, hauteman eta nabarmendu daitezen.



Deskargatu tipografia



### 4.3. Pisu eta familia tipografikoak.

#### UPV/EHU tipografia.

Unibertsitate jardueraren behar guztietara egokitu nahi duen tipografia da (barne dokumentuak, web orria, seinalizazioa, argitalpenak, kartelak, etab.), aintzat harturik UPV/EHUren izaera elebiduna.

EHU letra tipoak, beraz, izaera tipografiko bereko bi bertsio estilistiko ditu: EHU Serif (letrak erremateekin) euskarazko testuetan eta EHU Sans bertsio bat (errematerik gabeko letrak) gaztelaniazkoetan. Helburua da bereizketa eta identifikazio bisual baliokide, koordinatu eta harmoniko bat ezartzea bi hizkuntzak batera erabiltzean (euskara serif eta gaztelania sans). Serif bertsioa euskaraz bakarrik erabiltzen da. Gaztelaniaz eta gainerako hizkuntzetan Sans bertsioa erabiltzen da. EHU tipografiak, bere bi bertsio estilistikoetan, hainbat aldagai ditu pisuari eta makurdurari dagokienez. Aldagai horiek dira karaktere tipografikoen forma aldatetakoak. Eragiten dute trazua lodieran eta karaktereen ardatz bertikalaren makurduran. Aldagai tipografiko horiei esker, hierarkia bisualak ezar daitezke ingurune idatzian. Laguntzen dute ere adierazpen bisualaren beharrei tipografiaren bidez erantzuten. Erabilera aldagai horien barruan, optikoki optimizatutako bertsio bat dago, dokumentu inprimatuetan espezifikoki erabiltzeko (Book, Book italic).

| EHU Serif                                                      | EHU Sans                                                     |
|----------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------|
| EHU Serif Light<br><i>EHU Serif Light Italic</i>               | EHU Sans Light<br><i>EHU Sans Light Italic</i>               |
| EHU Serif Book<br><i>EHU Serif Book Italic</i>                 | EHU Sans Book<br><i>EHU Sans Book Italic</i>                 |
| EHU Serif Regular<br><i>EHU Serif Italic</i>                   | EHU Sans Regular<br><i>EHU Sans Italic</i>                   |
| <b>EHU Serif Bold</b><br><b><i>EHU Serif Bold Italic</i></b>   | <b>EHU Sans Bold</b><br><b><i>EHU Sans Bold Italic</i></b>   |
| <b>EHU Serif Black</b><br><b><i>EHU Serif Black Italic</i></b> | <b>EHU Sans Black</b><br><b><i>EHU Sans Black Italic</i></b> |

batzuk, urre edo zilarrezko ziutak  
tigreak, ikus lezazke bale urdinak  
s lezazke bi emakume soineko lara  
en ondoan eserita. Ikus lezazke eg  
jinarioren multzokada lez pausat  
**explorador cansado** Bernardo Atxa  
orador cansado dentro de los límites  
caminos que los limoneros acomp  
pos donde el vino va se presente.

## 4.4. UPV/EHU piktogramak.

Seinalizazio argi eta sinple batek laguntzen du idatzizko informazioaren mugak gaituzten, eta leku guztietara azkar, seguru eta era autonomoan iristen laguntzen die pertsona guztiei.

Irisgarritasun unibertsal hori gauzatzeko aldera, seinalizazio sistema piktografiko honen helburua da, EHU sistema tipografikoarekin konbinatuta, erraz ulertzeko unibertsitate inguruneak ematen dituzten informazioak. Horrez gain, ingurune horrekin dugun komunikazio bisualaren identitate espezifikoaren erakundeak eta jarduerak akademikoak erraztea. Piktograma sistema honi esker, unibertsitateko kideek ingurune ulergarriago eta ordenatuago bat dute, bai orientaziorik, bai elementuak eta zerbitzuak erabiltzeko moduari dagokionez.

Piktogramak deskargatu  
Descargar pictogramas




## 4.4. UPV/EHU piktogramak.

EHU sistema piktografikoa diseinatzeko, hainbat piktograma garatu dira, UPV/EHUko espazio fisiko eta birtualetako seinalizazioaren egungo oinarritzko beharrei erantzuteko. Horrela sortu da elkarren artean bisualki harmonizatutako eta orekatutako piktograma «alfabeto» oso bat.


UPV/EHUko piktogramen proiektu honetan ezarritako helburuen artean, nabarmentzekoak dira:

- EHU tipografiarekiko bateragarritasun formala, piktogramak direlako hitzezko informazioa osatzen duten elementu grafikoak. Aintzat harturik oinarritzko nortasun elementu guztien bateratasuna eta homogeneotasuna (bai eta haien arteko koordinazioa ere) bermatuko dituen printzipio integratzailea, egokitu egin da UPV/EHUko piktograma espezifikoen diseinua EHU tipografiaren formara, biak batera aplikatzeko seinalizazioan.
- Lehenetsuna ematea piktograma bakoitzaren komunikazio balioari: zehaztasun formala, sinpletasuna, batasuna, neutraltasuna, deskodetzeko erraztasuna, interpretazio denbora murriztea, etab. Horregatik, oinarri formal gisa erabili dira zabalkunde handiena duten seinalizazio sistema piktografikoen konbentzioak (AIGA, ISO 7010, ERCO, SGA, etab.), denboran gehien egonkortutako konfigurazio formalekin.
- Hainbat teknika eta eskalatan, hainbat atzealderekin etab. erabiltzeko aukera.
- Ulermen unibertuala, hizkuntza edo testuinguru kulturala gorabehera.
- Printzipio harmonikoa, antzeko tratamendu grafikoarekin eta estilo bateratuarekin.




## 4.4. UPV/EHU piktogramak.

### Instalazioen piktogramak.



### Garraio piktogramak.



### Segurtasun piktogramak.




### Orientazio piktogramak.



### Zerbitzuen piktogramak.



### Web/app piktogramak.



# **EUSKARRI KORPORATIBOAK.**

# **05**

## 5.1. DIN formatuko logotipoak erabiltzeko irizpide orokorrak.

### DIN formatuko logotipoak erabiltzeko irizpide orokorrak.

UPV/EHUren paper-gauzek koherentzia bisual bat izan behar dute marka eta haren osagai diren beste elementu batzuk aplikatzean.

Paper-gauzen euskarriek egokitu egin behar dute eskuliburu honetan aipaturiko formatu eta neurrietara (ondoren aipatzen dira). Horrela, karpetek, gutun-azalek, eskutitz orriek, txartelek eta gainerako euskarriek eredu berean oinarritu beha dute, euskarri bakoitzaren ezaugarriak gorabehera.

Hizkuntzak kromatikoki bereizteko, % 100 beltza erabili behar da euskaraz; % 70 beltza, gaztelaniaz.

Beste marka batzuekin batera erabiliz gero, marka horiei Z/B koloreak aplikatuko zaizkie, haien eskuliburuak hala jasotzen badu. Bestela, dagokien kolorea.

# 5.2. Bisita txartela.

Tipografiak eta txartelen aurrealdeko eta atzealdeko elementuen banaketak kontuan hartu behar dituzte jarraibide hauek.

Tamaina: 90x55 mm.  
1+1 Inprimaketa (K).  
Papera: zuri leun iztukatu matea, 250 g.



Deskargatu txantiloia 

### 5.3. Eskutitz orriak.

Atal honetan aipatzen dira lehenengo gutun orriaren egitura eta haren elementu bakoitzean erabili beharreko tipografiak.

Goiburuan, UPV/EHUren marka kokatuko da, ezkerrean, dagokion babes inguruarekin.

Ikastegiaren edo sailaren izena sartu behar izanez gero, dagokion marka erabiliko da.

DIN A4 tamaina.

1+1 inprimaketa (K).

Gomendatutako papera: Conqueror CX22, 100 g.

Beste aukera bat: offset zuria, 80 g.



## 5.4. Gutun-azal amerikarra.


Atal honetan aipatzen dira erabili beharreko tipografia eta gutun-azalen aurrealdeko eta hegaleko elementuak.

Tamaina: 220x110 mm.

1+0 inprimaketa (K).

Gomendatutako papera: Conqueror CX22, 120 g.

Beste aukera bat: offset zuria, 90 g.



Deskargatu txantiloia



## 5.5. C4 gutun-azala.


Atal honetan aipatzen dira erabili beharreko tipografia eta gutun-azalen aurrealdeko eta hegaleko elementuak.

Tamaina: 330x230 mm.

1+0 inprimaketa (R).

Gomendatutako papera: Conqueror CX22, 120 g.

Beste aukera bat: offset zuria, 90 g.



Deskargatu txantiloia



eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# **EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERAKUNDE IRUDIAREN ESKULIBURUA.**